



## STEILASen Lan-akordio berri bat lortzeko egindako alegazioak

Azken mahai sektorialean Hezkuntza Sailak lan akordio berri baten proposamena ekarri zuen mahaira. Azken lau urteetan honen inguruko hamaika bilera izan ditugu, eta proposamen ezberdinen gainean ekarpen ezberdinak eta lanketa sakonak egin ditugu **STEILAS**etik.

Azken proposamen honi dagokionez, lanketa egin eta afiliatuekin kontrastean egin ostean, esan dezakegu ez dela gure lan baldintzak hobetzeko eta eskola publikoan kalitatea bermatzeko nahikoa.

14 urte pasatu dira lan hitzarmena sinatu zenetik, urte horietan guztietan irakasleon lan baldintzek okerrera egin dute, jasaten dugun lan zama handiagoa da eta hezkuntza arloan ere, konplexutasunak nabarmen gora egin du: burokratizazio handia, familia eta ikasleen aniztasunaren kudeaketarako pertsonal falta, aurrera eramaten diren baliabide nahikorik gabeko hamaika plan eta protokolo... Eta ordu lektiboen kopuruak gehiegizkoak dira geroz eta ikasleen arreta indibidualizatuagoa egin behar bada, geroz eta hezkuntza eremu konplexuagoetan, uneoro berrasmutzen ibili behar bagara.

Hezkuntza Sailaren proposamenak, hezkuntza eta langileen kalitateari begiratu beharrean lan zama handitu eta burokratizazioa areagotzeko bidean joan dira.

Gainera ez du jasotzen langile-taldea gazte-berritzeko benetako neurririk, ezta egungo egoerei aurre egiteko lizentzia eta baimenik ere, are gutxiago KPIaren berreskuratzera eramango gaituzten proposamenik.

Jarraian dituzu Hezkuntza Sailak azken dokumentuan eginiko proposamenak eta sindikatutik eginiko alegazioak, aipatu bezala lau urtez luzatu den prozesua da eta hau azken dokumentuari dagokiona da soilik.

Negoiazioak bide hau jarraituko balu, Hezkuntza Sailaren kolorea edozein dela ere, **STEILAS**etik argi dugu ez dela nahikoa, ez dituela langileen beharrak asetzen eta beharrezko bideak erabiliko ditugu benetako edukiak lan akordio berri batean txertatu daitezzen.

## Aurkibidea

---

- 8. Artikulua. Enplegua hobetzeko neurriak.
- 9. Artikulua. Lehiaketak.
- 15. Artikulua. Irakasle funtzionarioen barne-sustapena eta karrera profesionala.
- 16. Artikulua. Irakasleen ordezkogaien zerrenda.
- 17. Artikulua. Bitarteko langileen lan-baldintzak.
- 18. Artikulua. Ordezkapenak egitea.
- 19. Artikulua. Plangintzaren arloko konpromisoak.
- 20. Artikulua. Jarraipen Batzordea eratzea.
- 22. Artikulua. Plangintza Batzorde Teknikoa.
- 24. Artikulua. Urteko lanaldia.
- 25. Artikulua. Urteko lanaldiaren banaketa.
- 31. Artikulua. Bizitza pertsonala, familia eta lana bateragarri egiteko lizentzia eta baimenak.
- 32. Artikulua. Ezkontzagatiko edo izatezko bikotea eratzegatiko lizentzia.
- 36. Artikulua. Ohiko etxebizitzaz aldatzeko lizentzia.
- 46. Artikulua. Kontsulta, tratamendu eta azterketa medikoetara joateko baimena.
- 49. Artikulua. Hautapenezko karguari dagozkion eginkizunak betetzeko baimena.
- 51. Artikulua. Ordaindutako baimena, egonaldiak gauarekin konpentsatzeko.
- 54. Artikulua. Ordu-tegi-murrizketak.
- 60. Artikulua. Nomina aurrerapenak.
- 61. Artikulua. Istripu, bizitza eta erantzukizun zibileko aseguruak.
- 62. Artikulua. Gizarte-funtsa.
- 64. Artikulua. Berriazko osagarriaren dedikazio bereziko osagaia.
- 66. Artikulua. Kargu akademikoak eta hezkuntzako koordinazio-eta kudeaketa-karguak betetzea.
- 68. Artikulua. Irakasleen etengabeko prestakuntza.
- 69. Artikulua. Irakasleen prestakuntzari buruzko konpromisoak hitzarmen honen indarraldirako.
- 70. Artikulua. Irakasleen hizkuntza-gaitasuna hobetzeko prestakuntza.
- 72. Artikulua. Osasuna eta Segurtasuna.
- 75. Artikulua. Aniztasunari erantzuteko esparruko prestakuntza.
- 76. Artikulua. Ekintza sindikala.
- 77. Artikulua. Batzorde Paritarioa.

## 8. artikulua. Enplegua hobetzeko neurriak

"I. KAPITULUA. KARRERAKO FUNTZIONARIO IZATERA IRISTEA.

8. artikulua. – Enplegua hobetzeko neurriak.

Alderdi sinatzaileek adierazi dute akordio honek bitartekotasun-tasari eustearekin lotzen duela, gehienez ere % 5era arte, hezkuntza-administrazioaren mendeko eta irakasle funtzionarioentzat diren unibertsitateaz kanpoko ikastetxe publikoetako egiturazko plazen artean. Premisa hori honako uste honetan oinarritzen da: karrerako funtzionarioen lanpostuko egonkortasunak langileen baldintzak hobetzen ditu, bai eta irakaskuntzaren kalitatea ere, klaustro benetan egonkorak eratzeko aukera ematen baitu.

Egiturazko plazatzat hartuko dira karrerako funtzionarioek betetzen dituzten plazak eta ikasturte bakoitzerako argitaratzen den plantilla organikoan dauden lanaldi osoko plaza hutsak. % 5eko bitartekotasun-tasa kalkulatzeko, karrerako funtzionarioek betetako plazatzat hartuko dira gauzatze-prozesuan dauden lan-eskaintza publikoetan deitutako plazak.

Alderdi sinatzaileek honako jarduketa hauek garatuko dituzte:

- Lanpostuen Zerrendetan finkatzea, urtero, koiunturalak edo aldi baterako proiektuen garapenaren ondoriozkoak ez diren eta espezialitatean eta profilean erabat identifika daitezkeen plazak, dagozkien prozeduren bidez bete ahal izateko.

- Lan-eskaintza publikoen deialdia.

Irakasle funtzionarioentzako enplegu publikoko deialdiak indarreko legeriara egokituko dira, eta, oro har, hiru urteko ziklo jarraituetako irakasleen kidegoen arabera bereiziko dira.

Lan-eskaintza publikoetan parte hartzeko plazen eskaintza eta deialdien baldintzak sindikatuekin negoziatuko dira.

Legediak ahalbidetzen dituen lanpostu huts guztiak eskainiko ditu Hezkuntza Sailak, betiere Lanpostuen Zerrendan % 100eko lanaldiarekin badaude, prozesuen segurtasun juridikoa eta horietan parte hartzen duten pertsonen eskubideak babestuz. Lanpostuen kopurua eta espezialitateak sindikatuekin negoziatuko dira, unibertsitateaz kanpoko euskal hezkuntza-sistemako etapa bakoitzerako irakasleen beharrak planifikatzeko irizpideetan oinarrituta.

Administrazioak arlo horretan dituen eskumenen barruan, 2024tik aurrera deitutako lan-eskaintza publikoetan, kidego eta espezialitate bakoitzerako nahitaezko gai-zerrendei dagokienez, Administrazioak gaitegia, material eta eredu orientagarriak emango ditu curriculumean oinarritutako probak egiteko, eguneratuta eta ikasgelako praktika pedagogikora egokituta. Material hori euskaraz egingo da, deialdiko plazen ezaugarrien araberrako zehaztapen-maila desberdinak izango ditu eta interesdunen eskura egongo da doan.

Enplegu publikoko eskaintzetan ez da deialdirik egingo, Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bataratuko C1 euskara-maila gutxienez esleituta ez duten lanpostuetarako."

### Enplegua hobetzeko neurriak:

**Eskaera:** hainbat lanposturen estrukturalizazioa gauzatzea, horien artean azken hiru urteetan ikastetxeetan egon direnak (BEAtarrak, entzumena eta Hizkuntzako irakasleak, hizkuntza indartzeko irakasleak, jangelako arduradunak, hezkidetzak edo antzerako proiektuen arduradunak)...

#### - Lanpostuen Zerrendetan finkatzea:

**Eskaera:** sindikatuekin egingo diren bileren derrigortasun eta maiztasuna nahiz datuen gardentasuna lanpostuen zerrenden datuak ikastetxeetara bidali baino lehenago zehaztea.

#### - Lan-eskaintza publikoen deialdia.

"Legediak ahalbidetzen dituen lanpostu huts guztiak eskainiko ditu Hezkuntza Sailak, betiere Lanpostuen Zerrendan % 100eko lanaldiarekin badaude, prozesuen segurtasun juridikoa eta horietan parte hartzen duten pertsonen eskubideak babestuz"

**Eskaera:** legediak mugarik jartzen ez duenean dauden lanpostu guztiak eskaintzea.

*"Administrazioak gaitegia, material eta eredu orientagarriak emango ditu curriculumean oinarritutako probak egiteko, eguneratuta eta ikasgelako praktika pedagogikora egokituta. Material hori euskaraz egingo da, deialdiko plazen ezaugarrien arabera zehaztapen-maila desberdinak izango ditu eta interesdunen eskura egongo da doan."*

**Eskaera:** euskarazko gaitegi garatu ofiziala egongo dela zehaztea baita kasu praktikoetarako orientabide eta errubrikak ere.

Aurreko lan akordioan ageri den bezala, hiru urtean behin gauzatuko diren oposizioen deialdiak zein kidegotan izango diren zehaztea.

## 9. artikulua. – Lehiaketak

*"1.- Lekualdatze-lehiaketa.*

*...Ikastetxe bateko zuzendariak, baldin eta behin betiko destinoa ikastetxean badute eta bigarren agintaldia amaitzean edo ebaluazio positiboa izan duten ondorengo agintaldi bat edo ondoko agintaldi bat amaitzean ikastetxez aldatzea erabakitzen badute, lehentasuna izango dute autonomia-erkidego mailako lekualdatze-lehiaketen deialdietan, eta behin bakarrik, beste destino bat aukeratzeko beren kidegoan eta espezialitatean, hutsik dauden lanpostuen arabera..."*

**Eskaera:** neurri honen arabera 8 urtez zuzendaria izan ostean lekualdatze-lehiaketarako lehentasuna lortuko litzatekeela ulertuta, 8 urtetik 4 urtera jaistea.

## 15. artikulua. – Irakasle funtzionarioen barne-sustapena eta karrera profesionala

*"Hezkuntzako Ikuskarrien Kidegora sartzea. Ikuskaritzako kidegoan sartzeko deialdietan, hezkuntzaren alorrean eskumena duen sailak plazen hamarren bat gordeko du eskakizun orokorrak betetzen dituzten eta gutxienez **hiru agintaldi** osotan zuzendari-kargua ebaluazio positiboarekin bete duten irakasleentzako merezimendu-lehiaketa bidez betetzeko."*

**Eskaera:** hiru agintaldi horiek agintaldi batera jaistea eta zuzendaritza taldeko kideen lan esperientzia berdin kontsideratzea ere bai.

*"Lanbide-karrera hori ezartzeko aintzakotzat hartu beharreko irizpideen artean, besteak beste, honako hauek hartu ahal izango dira kontuan: zuzendaritza-funtzioaren ebaluazio positiboa, irakas-praktikaren borondatezko ebaluazio positiboa, tutoretza-funtzioa aitortzea, etengabeko prestakuntza egiaztatzea eta/edo baloratzea, lan eta erantzukizun osagarriak norbere gain hartzea, ikasleei hobeto irakasten eta ikasleen emaitzetan inplikatzeko; lana areagotzea eta aipatutako balorazioa egiteko adosten diren beste guztiak."*

**Eskaera:** paragrafo hau kentzea eskatzen dugu. **STEILAS**en ez gaude karrera profesionalaren alde, eta bereziki azken paragrafo honekin ez gatoz bat, langileen arteko lehia sustatzen du eta emaitzei lotutako balorazioetan oinarritzen da, irakasle lanaren zati bat neurtezina da eta faktore ugari daude irakas-prosezuaren parte direnak, hauen artean ikasleen konplexutasuna, hemen ez dira kontenplatu.

## 16. Artikulua. - Irakasleen ordezko gaien zerrenda

*"Ordezkapenak egiteko hautagaien zerrendak lan-eskaintza publiko bakoitzean deitutako hautaketa-prozesuetan lortutako puntuazioaren arabera ordenatuko dira."*

**Eskaera:** egun dagoen bezala uztea. Gure iritziz ordezkoen zerrendak oposizioekin lotzea atzerapausoa da, oposizioen prestaketa aldi zehar lankideen arteko arrakala handia sortuz eta egunerokotasuneko lanean isla zuzena izanez. Lan eskarmentua puntuazioa gehitzeko ardatz nagusia izan behar da, egun bezala. Beraz, neurri honen ezarpenak ondorio kaltegarriak ekarriko lituzke hezkuntza kalitaterako.

Gainera oposizioen azterketaren eredia guztiz zaharkituta dago, eta ez da errealitatera moldatzen. Horretaz gain, egun ordezko gaien zerrendetan sei puntu ematen dira oposizioa gainditzeagatik, beraz oposizioa gainditzeak badu nahikoa isla lanpostuen kudeaketarako.

## 17. Artikulua.- Bitarteko langileen lan-baldintzak

*"17. artikulua. – Bitarteko langileen lan-baldintzak.*

*1. – Aldeen borondatea da bitarteko langileen lan-baldintzak hobetzea, karrerako funtzionarioen baldintzekin ahalik eta parekatze handiena bilatuz, legezko xedapenen eta baliabideen eskuragarritasunaren arabera. Horregatik, sektoreko Mahai Negoziatzailean langile horien lan-baldintzak aztertuko dira.*

*2. – Ehuneko ehunetik beherako lanaldia duten plazak, ahal bada, lanaldi partziala duten ikastetxeko irakasleei eskainiko zaizkie, bere lanaldia osatu ahal izateko, baina inolako derrigortasunik gabe. Lehentasun hori lanaldia luzatuko den lanpostuaren baldintzak betetzearen eta zentroaren antolaketak-aukeren mende egongo da. Arestian deskribatutako estaldura ezinezkoa denean, eskaini daitekeen gutxieneko ehuneko lanaldiaren herena izango da.*

*3. – Lanpostu baten urteko irakastorduak aldi baterako metatzen direlako, lanpostu hori betetzeko asteko gehieneko irakastorduak handitu behar badira, eta ez bada aurreikusten ondoren konpentsatzea irakastordu hori gutxienez behera murrizten den aldi, Hezkuntza Administrazioak beharrezko egokitzapenak proposatu ahal izango ditu bitarteko langileak izendatzeko, hitzarmen honetan zehaztutako lanaldi-baldintzak eta lan-ordutegiaren banaketa betetzeko.*

*4.- Ikasturtean 165 egun edo gehiago lan egin duten bitarteko langileek, uztailean izendapenik ez badute, hilabete bati dagokion haborokina eta puntuazioa jasotzeko eskubidea izango dute, aldi horretan egindako lanaldiaren 17 ehunekoaren arabera. Era berean, bitarteko langile guztiek, izendapen bakoitza amaitzean, aldi horretan sortutako abuztuko oporrei dagokien likidazioa eta puntuazioa jasotzeko eskubidea izango dute."*

### Eskaera:

1. Langile guztiek eskubide berdinak izatea funtsezkoa da eta horretarako ahalbidetuko dira.
3. Paragrafo honetan "administrazioak" aipatzen da; guretzat, zuzendaritzek ere parte hartzeko aukera izan behar dute
4. Udako kobrantza: gardentasuna behar da, puntuazio garbia beharrezkoa da eta lehen bezala abuztua puntuatzeko aukera bermatuko dela, puntuazio hau ordezko gaien zerrendako baremoaren ondorioetarako aplikatuz. Hainbat kontratu (ordezkapenen titularrak ezintasun aldi jarraitzen duenean kasu) uztailearen 31 arte izan beharko dira. Kotizazioak gainjartzearen ondorioz, puntuazioa nola izango den ez dakigu, zehaztea eskatzen dugu.

Udako puntuazio eta kobraketarako, hurrengo proposamenean jasotako taula berreskuratzea eskatzen dugu:

Lan egidako egunak	Kobratzeko egunak	Lan egindako egunak	Kobratzeko egunak
5 arte	0	101 arte	8
17 arte	1	113 arte	9
29 arte	2	125 arte	10
41 arte	3	137 arte	11
53 arte	4	149 arte	12
65 arte	5	161 arte	13
77 arte	6	164 arte	14
89 arte	7	165etik gora	Uztaila eta abuztua

5.- Atal honetan zera aipatzen da:

*"...ikasturte amaierara arteko iraupena duen lanpostu baten esleipendun duten langileek karrerako irakasle funtzionarioen eskubide eta betebeharren araubide bera izango dute."*

Hau ordea ez da betetzen hurrengo artikuluetan jasotzen diren lizentzia eta baimenetan, eta beraz, 5. atalean aipatzen diren baldintzak betetzen dituzten langileei ere zabaltzea eskatzen dugu:

- 42.artikulua. Minbizia edo beste gaixotasun larriren bat duen seme alaba adingabea zaintzeko baimena.
- 48. artikulua. Zientzia, teknika, lanbide elkargo, elkarte edo sindikatu izaerako talde gertakizunetara joateko baimena.
- 52. artikulua. Partzialki ordaindutako baimena. Urte sabatikoa.
- 53. artikulua. Ordaindu gabeko baimena.
- 54.1 artikulua. Osasun arrazoiengatik ordutegia murrizketa.
- 54.2 artikulua. Norberaren interesengatiko lanaldi-murrizketa.

## 18. artikulua. Ordezkapenak egitea

*"Zuzendaritza-taldeko kideen, aholkularitza eta orientazio langileen, irakaskuntza kargarik gabeko ikastetxeko berrikuntza proiektuen zuzendaritzaz eta koordinazioa arduratzen diren langileen eta eskola ordurik ematen ez duten langileen ordezkapenei dagokionez, ikastetxeko zuzendaritzak proposatuko du ordezkapen horiek ikastetxearen funtzionamendu egokirako egokitzat jotzen dituen baldintzetan betetzea".*

**Eskaera:** ikastetxeko zuzendaritzak kontrakoa adierazten ez badu, aldi baterako ezintasunagatik eta beste inguruabar batzuegatiko ordezkapenak 1. egunetik egingo direla jasotzea eskatzen dugu.

Adinagatik lanaldia murriztua dutenen kasuan, langile hauek aldi baterako ezintasun egoeran egonez gero; hau ordezkatzen duten langileei lanaldi osoa eskainiko zaiela jasotzea ere bai.

Ordezkapenak ez dira moztuko, hau da, lizentziak eta baimenak amaitu arte iraungo dute.

## 19. artikulua. – Plangintzaren arloko konpromisoak

"19. artikulua. – Plangintzaren arloko konpromisoak.

*Hitzarmen arautzaile hau indarrean dagoen bitartean, Hezkuntza Sailak giza baliabideak hornitzeko eskumena izango du, Hezkuntza Sailaren mendeko unibertsitatez kanpoko ikastetxe publikoetan plantilla esleitzeko irizpideei buruzko 2022ko maiatzaren 26ko Akordioan ezarritako irizpideen arabera.*

*Akordioaren helburuak honako hauek dira: giza baliabideen kudeaketa modernizatzea, egiturazko plazak egonkortzea eta autonomia handiagoa duten zentroetan jardutea ahalbidetuko duten baliabideak ematea.*

*Ildo horretan, akordioak ikastetxeei langileak esleitzea zehazten du, eta horrek aukera ematen du, besteak beste, egiturazkoak ez diren plazak egiturazko plaza bihurtzeko, zuzendaritza-eginkizunak betetzeko zuzkidura handitzeko, hezkuntza-premia bereziei lotutako baliabideak egonkortzeko, eta berrikuntza ikastetxeetan etengabeko presentzia izan behar duen funtsezko pieza gisa hartzen du. Era berean, akordioak sendotu egiten du ikastetxeek giza baliabideak antolatzeke duten autonomia, hezkuntza-proiektuaren garapenarekin bat etorritik. Halaber, irakasleak hezkuntza-prozesuaren funtsezko aktore gisa kokatzen ditu, eta beste laguntza-figura batzuk txertatzen ditu administrazio-eta euskarri-prozesuetarako ikastetxeetan."*

**Eskaera:** 2022ko maiatzaren 26ko Akordioan zehazten dituen ratioak artikulua honetan txertatzea eskatzen dugu. Heziketa bereziko baliabideak emateko irizpideak gardenak eta publikoak izan behar dira (Pedagogia terapeutikoa entzumena eta hizkuntza).

## 20. artikulua. – Jarraipen Batzordea eratzea

Plantillak esleitzeko irizpideei buruzko Jarraipen Batzordeari egiten zaio erreferentzia, batzorde hori dagokion datetan burutzea eskatzen dugu.

## 22. artikulua. – Plangintza Batzorde Teknikoa

*"Plangintza Batzorde Teknikoak eta lurraldeetako batzordeek ondo funtzionatu dezaten, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak Plangintza Batzorde Teknikoan aurkeztuko ditu, ikasturte hasieran, sare publikoko ikastetxeetako ikasle eta taldeei buruzko datuak. Era berean, Sailak alde sozialari helaraziko dio Plangintza Batzorde Teknikoak bere lanak egiteko behar duen dokumentazioa."*

**Eskaera:** sare publikoko ikastetxeetako datuak soilik jasotzeak ez du zentzurik PBT horren eskumena

*"plangintza-arau orokorretan, eskola-mapan eta haren zonifikazioan, ikastetxe-sarean egiten diren aldaketetan, hezkuntza etapetarako jartzen diren giza baliabideetan, laguntza zerbitzuetan, irakaskuntzak arautzen eta hezkuntza eskaintza osatzen, kidego eta lanpostuen arteko mugimenduetan"*.

Beraz, hezkuntza zerbitzu publikoa jasotzen duten ikastetxeetako ikasle eta ikastaldeen datuak eta behar den dokumentazioa sindikatuei helaraziko zaiela jasotzea eskatzen dugu.

## 25. Artikulua. – Urteko lanaldiaren banaketa

*"25-26 ikasturtetik aurrera, haur-hezkuntzako eta lehen hezkuntzako etapetan tutoretza-funtzioa betetzen duten irakasleen eskola-ordutegia murriztuko da. Bi ordu murriztuko dira eskola-ordutegiaren guztizko zenbaketaren barruan, betiere tutoretza-lan hori egiten duen pertsona bat baino gehiago ez badago."*

Bi eskola-ordu (saio lektibo) horien jaitziera tutoreak ez direnentzat lan zama igotzea ekarriko luke; azken urteetako lan zamaren igoeraren ondorio irakasle guztien 2 eskola-

orduren murrizketa eskatzen dugu, arreta zuzena duten irakasle guztiak barne. Ordu horien ordezkapena bermatuta egotea funtsezkoa da eta DAEn ere islatuta egotea.

Irakaskuntza ertainetan 30 orduko ordutegia dela argi izanda, 2010eko akordioan jaso zen:

*"Bigarren Hezkuntzako irakasleek astean 30 orduko lanaldia egingo dute ikastetxerako, eta 23 ordu ikastetxean bertan emango dituzte. Batez beste, 17 eskola-ordu emango dituzte, eta gehienez 18 ... (31.artikulua)".*

Hurrengo txertatzea eskatzen dugu: Bigarren Hezkuntzako irakasleek astean 30 orduko lanaldia egingo dute ikastetxerako, eta 23 ordu ikastetxean bertan emango dituzte. Batez beste, 16 eskola ordu emango dituzte, eta gehienez 17.

Horrez gain, ikasleekin arreta zuzena izatea eskatzen duen edozein proiektu (HEDATZE edo baliokideak), eskola ordutzat hartuko da.

Guardia orduak:

*"Bigarren Hezkuntzan eta Lanbide Heziketan asteko zaintza orduak ez dira hiru baino gehiago izango."*

**Eskaera:** Bigarren Hezkuntzan eta Lanbide Heziketan asteko zaintza orduak eta eskola orduak ez dira 19 baino gehiago izango.

Bigarren Hezkuntzako eta Lanbide Heziketako irakasleak

*"esparruka eta ikasgelan berrikuntza proiektuetan lan egiten duten bigarren hezkuntzako irakasleen irakastorduak murriztea erabaki ahal izango da".*

**Eskaera:** Bigarren Hezkuntzako eta Lanbide Heziketako irakasleak esparruka eta ikasgelan berrikuntza proiektuetan lan egiten duten bigarren hezkuntzako irakasleen eskola orduak batez beste 14 izango dira, eta gehienez 15.

Kasu hauetan, Bigarren Hezkuntzan eta Lanbide Heziketan asteko zaintza orduak eta eskola orduak ez dira 17 baino gehiago izango.

*"25-26 ikasturtetik aurrera, tutoretzara bideratutako ordutegia parekatuko da, tutoretzan pertsona bat baino gehiago dauden taldeen kasuan"*

2022ko maiatzaren 26an sinatu zen zeintzuk ziren irizpideak 2.tutorea izendatzeko. Eta jasota dago tutoreak gutxienez 2 saio lektibo eman behar dituela bere gelan: tutoretza saioa eta proiektu komunitarioa.

**Eskaera:** 24-25 ikasturtetik aurrera, tutoretzan pertsona bat baino gehiago dauden taldeen ikastetxeetan, 2. tutore bakoitzetik 3 ordurekin hornituko da ikastetxea.

*"Uztaila lan hilabetetzat hartzen da. Hilabete horretan, karrerako funtzionarioek eta indarrean dauden kontratudun bitarteko funtzionarioek administrazioaren esanetara egon behar dute prestakuntza jarduerak egiteko, matrikulazio prozesuan laguntzea, prozesu hori uztailean irekita badago, irakaskuntzan sartzeko hautaketa prozesuetan epaimahai gisa parte hartzeko, karrerako funtzionarioen kasuan, ikastetxeko kide anitzeko organoen deialdietara joateko eta antolatzekeo jarduerak egiteko, azken kasu horretan hala jasotzen da Ikastetxearen Urteko Planean."*

**Eskaera:** uztaila lan hilabetetzat hartzen da. Hilabete horretan, karrerako funtzionarioek administrazioaren esanetara egon behar dute irakaskuntzan sartzeko hautaketa prozesuetan, epaimahai gisa parte hartzeko.



Eta karrerako funtzionarioek eta indarrean dauden kontratudun bitarteko funtzionarioek ikastetxearen zuzendaritzaren esanetara egon behar dute ikastetxeko kide anitzeko organoen deialdietara joateko eta antolatzeako jarduerak egiteko, azken kasu horretan hala jasotzen da Ikastetxearen Urteko Planean.

### **31. Artikulua. - Bizitza pertsonala, familia eta lana bateragarri egiteko lizentzia eta baimenak**

*"31. artikulua. - Bizitza pertsonala, familia eta lana bateragarri egiteko lizentziak eta baimenak.*

*1.- Euskal Autonomia Erkidegoko irakaskuntza publikoko langileek bizitza pertsonala, familia eta lana uztartzeko lizentziak eta baimenak hartu ahal izango dituzte.*

*Nolanahi ere, honako lizentzia eta baimen hauek emango dira, gutxienezko baldintza eta guzti:*

*a) Jaiotzagatiko lizentzia gurasoentzat: legeak aurreikusten dituen aste kopurua gehi bi aste gehiago, haurra jaiotzen den unean Hezkuntza Sailarekin gurasoen kontratua indarrean badago. Aldi hori hobetzen duten arau-aldaketak automatikoki aplikatuko dira.*

*Asteak honela baliatuko dira: erditu ondorengo sei asteak nahitaez eta etenik gabe hartu beharko dira; hurrengo asteak etenik gabe hartu ahal izango dira, edo asteko gutxienezko aldietan banatu, erditzearen ondorengo nahitaezko atsedenaldia amaitzen denetik semeak edo alabak hamabi hilabete bete arte.*

*Etendako modua aukeratuz gero, gutxienez hamabost eguneko aurreabisua beharko da eskatutako aldi bakoitzerako, eta aste osotan egingo da. Hobekuntzako bi asteak legeak baimentzen duen azken astearen ondoren hartuko dira, beti jarraian.*

*Aste guztiak etenik gabe hartzeko aukeraren kasuan, lizentzia beste bi astez luzatuko da.*

*Ezin izango zaio uko egin hartutako aukerari, behar bezala justifikatutako ezinbesteko kasuetan izan ezik.*

*Lizentzia hori beste bi astez luzatuko da seme-alabaren dibertsitate funtzional fisiko, psikiko edo sensoriala dagoenean, eta bigarrenetik aurrerako seme-alaba bakoitzeko, erditze anizkoitza izanez gero. Bi aste horiek gurasoen artean banatuko dira eta besterenezinak izango dira.*

*Erditze goiztiarraren kasuetan eta, beste edozein arrazoiengatik, seme-alabak ospitalean egon behar duenean erditzearen ondoren edo gehienez hogeita hamar eguneko epean, jaioberria egoera horretan dagoen adina egun luzatuko da lizentzia hori, gehienez ere beste hamahiru astez. Kasu horietan, aipatutako lizentzia eteteko aurreabisua erraztu eta gaituko da. Lizentzia eteteko lege ezarritako abisutik salbuetsiko dira gurasoetako edozein gutxienez astebeteko larrialdiko ospitaleratzea duten kasuak. Baja medikoa amaitzen denean, baimenari berriro ekin ahal izango dio, lege ezarritako aurreabisuaren beharrik gabe, betiere administrazio-kudeaketako gutxienezko epeei kasu eginez.*

*Semea edo alaba hiltzen bada, lizentziaren iraupena ez da murriztuko, nahitaezko atsedeneko sei asteak amaitu ondoren lanpostura itzultzea eskatzen denean izan ezik.*

*Lizentzia hau baliatu bitartean, nahitaezko atsedenaldia amaitu ondoren, Administrazioak deitzen dituen prestakuntza-ikastaroetan parte hartu ahal izango da. Beti langilearen borondatez eta inolako derrigortasunik gabe.*

*b) Adopzioagatiko, adopzio-helburuko zaintzagatiko edo harreragatiko lizentzia, aldi baterakoa zein iraunkorra: lizentzia honek aurreko ataleko gurasoentzako lizentziaren baldintza berak izango ditu. Lehenengo sei asteak nahitaez eta etenik gabe baliatuko dira adopzioa eratzen duen ebazpen judizialaren edo adopzio edo harrera helburuko zaintzaren administrazio-erabakiaren ondoren.*

*Epearen zenbaketa gurasoak aukeratzen duen moduan zenbatuko da, haurra jaiotzen denetik edo adopzio edo harrera helburuko zaintzari buruzko administrazio-erabakia hartzen denetik aurrera, edo adopzioa eratzen duen ebazpen judiziala ematen denetik aurrera, baina adingabe berak ezin izango du, inola ere, lizentzia horretaz baliatzeko hainbat aldi hartzeko eskubiderik eman.*

*Nazioarteko adopzio edo harrera kasuetan, gurasoek adoptatutako pertsonaren jatorrizko herrialdera joan behar badute, gehienez ere bi hilabeteko lizentzia hartzeko eskubidea izango dute, eta aldi horretan oinarrizko ordainsariak baino ez dituzte jasoko.*

*Aurreko paragrafoan aurreikusitako bi hilabete arteko lizentzia gorabehera, eta paragrafo horretan jasotako kasurako, adopzio, adopzio aurreko zaintza edo harreragatiko lizentzia, aldi baterakoa zein iraunkorra, adopzioa eratzen duen ebazpen judiziala edo harrerari buruzko erabaki administratibo edo judiziala eman baino lau aste lehenago hasi ahal izango da.*

*Artikulu honetan aurreikusitako adopzio, adopzio aurreko zaintza edo harrera kasuak, aldi baterakoak zein iraunkorrak, Kode Zibilean edo horiek arautzen dituzten Euskal Autonomia Erkidegoko lege zibilean ezarritakoak izango dira, eta aldi baterako harrerak gutxienez urtebete iraun beharko du.*

a) eta b) idatz-zatietan aurreikusitako kasuetan, lizentzia horiek hartu bitartean igarotako denbora benetako zerbitzutzat zenbatuko da ondorio guztietarako, betiere gertaera eragilearen egunean Administrazioarentzat zerbitzuak ematen ari badira, eta funtzionarioaren eskubide ekonomiko guztiak bermatuko dira lizentziak irauten duen aldi osoan, eta, hala badagokio, lizentzia hartu ondorengo aldietan, baldin eta, aplikatzekoa den araudiaren arabera, ordainsari-kontzepturen bat jasotzeko eskubidea lizentziaren aldiaren arabera zehazten bada.”

## Eskaera:

a) eta b) atalean unean-unean indarrean dagoen baimena

gehi 4 aste gehigarri izatea.

"c) Hamabi hilabete baino gutxiagoko seme edo alaba edoskitzeagatiko lizentzia.

Funtzionarioek lanpostuan ordubeteko absentsia izateko eskubidea izango dute. Absentsia hori lanaldiaren hasieran edo amaieran hartu ahal izango dute, aldi bakar batean edo ordu erdiko bi tartetan banatuta, bata lanaldiaren hasieran eta bestea lanaldiaren amaieran. Absentsia-aldia zentroarekin adostu beharko da, eta ahal den guztietan lan-ordutegi berean baliatuko da beti.

Atal honetan jasotako lizentzia funtzionarioen eskubide indibiduala da, eta ezin zaio beste guraso, adoptatzaile, zaintzaile edo harreragileari eskualdatu.

Edoskitze-denboraren ordez ordaindutako lizentzia bat eskatu ahal izango da, dagokion denbora lanaldi osoetan metatuz, hau da, sei ordu lanegun bakoitzeko. Ez dira laneguntzat hartuko interesduna aldi baterako ezintasun-egoeran egon den egunak edo zentrora lizentzia, baimen edo antzeko egoeraren batengatik joan ez dena. Edoskitze metatua aukeratuz gero, etenik gabe hartu beharko da. Bitarteko funtzionarioen kasuan, lizentzia hori metatuta eskatu ahal izateko, izendapenak ikasturtea amaitu arte iraungo duela bermatu beharko da, edo, gutxienez, hura baliatzeko epea nahikoa izango dela.

Aukera metatu hori erabiliz gero, haren iraupena hogeita lau egun naturalekoa izango da, baldin eta zerbitzuak ikasturte osoan ematen badira, eta hainbanatu egingo dira zerbitzuak gutxiago eman badira. Edoskitzea metatuta eta lanaldi murriztuan egiten denean, honako taula hau aplikatuko da:

LANALDI MOTA	EDOSKITZE-EGUN METATUAK
OSOA	28 EGUN
MURRIZTUA: % 83,33	29 EGUN
MURRIZTUA: % 66,67	32 EGUN
MURRIZTUA: % 50	38 EGUN
MURRIZTUA: % 33,33	45 EGUN

Kontuan hartu behar da, ondorio horietarako, zerbitzuak benetan eman daitezkeen egunei dagozkien orduak bakarrik zenbatuko direla. Horregatik, eskaera egiten den unean jakinarazi beharko da adin txikiko hamabigarren hilabetea bete arte geratzen den denboran lizentziak, baimenak, oporrak edo eszedentziak hartzeko eskaera egingo den, aldi horiek zenbaketatik kanpo uzteko.

Zirkunstantzia horiek jakinarazten ez badira eta ondoren edoskitze metatua eskatzen bada, hartutako edoskitze-aldia doitu egin beharko da, eta, ondorioz, hartutako gehiegizko egunen ordainsariak itzuli beharko dira.

Edoskitze-modalitateetako bat hasi ondoren, ezingo da aldatu.

Edoskitze metatua jaiotzagatiko, adopzioagatiko, zaintzagatiko edo harreragatiko lizentzia amaitzen denetik aurrera soilik hartu ahal izango da.

Era berean, proportzionalki handituko da erditze, adopzio, adopzio-helburuko zaintza edo harrera anizkoitzen kasuetan.”

Edoskitze metatua disfrutatzekeo egunei buruz:

Sententzia honen arabera beste kontuen artean hurrengoa ezartzen da:

2.- Por su parte, el art. 12. 4 d) ET, en trasposición de la cláusula 4 del Acuerdo Marco sobre el trabajo a tiempo parcial, que figura en el Anexo de la Directiva 97/81/CE del Consejo, de 15 de diciembre de 1997, dispone que “Las personas trabajadoras a tiempo parcial tendrán los mismos derechos que los trabajadores a tiempo completo”

Eta bertan irakurri daitekeen arabera, jardun osoan 28 egun dira disfrutatzeakoak eta beraz, jardun murriztuen kasuetan proportzionalki aplikatu beharko da.

Hau horrela jasotzea eskatzen dugu:

Lanaldi mota	Edoskitze-egun metatuak
Osoa	28 egun
Murriztua: % 66,67	42 egun
Murriztua: % 50	56 egun
Murriztua: % 33,33	84 egun

2010 akordioan zera dago jasota:

*"Era berean, emakume langileak lanean ordu-beteko etenaldia egiteko eskubidea du hamar hilabete baino gutxiagoko seme-alabako; denbora hori bi zatitan bana dezake bularra edo biberioa emateko."*

Oraingo proposamenean:

*"Funtzionarioek lanpostuan ordubeteko absentsia izateko eskubidea izango dute. Absentsia hori lanaldiaren hasieran edo amaieran hartu ahal izango dute, aldi bakar edo ordu erdiko bi tartetan banatuta, bata lanaldiaren hasieran eta bestea lanaldiaren amaieran. Absentsia aldia zentroarekin adostu beharko da, eta ahal den guztietan lan ordutegi berean baliatuko da beti."*

**Eskaera:** 2010ean agertzen zen bezala uztea.

## 32. Artikulua. - Ezkontzagariko edo izatezko bikotea eratzeagariko lizentzia

1.b) Izatezko bikoteak arautzen dituen maiatzaren 7ko 2/2003 ED ez dago eguneratuta, baizik eta RD-ley 5/2023, ekainaren 28koa. Atal horretan ere 6 urte igaro beharrez, 4 urte proposatzen dugu.

Bizikidetzaren egonkorren aitortza: 3 urtez elkarbizitza egonkorrean daudenen elkarren arteko lizentzia eta baimenak izango dituzte ezkontuta daudenenak bezala edo izatezko bikoteak direnenak bezala.

## 36. artikulua. Ohiko etxebizitzaz aldatzeko lizentzia

**Eskaera:** "Funtzionarioak bi laneguneko lizentzia hartzeko eskubidea izango du etxebizitzaz aldatzeagatik. Egoera hori errolda ziurtagiriaren bidez justifikatuko da, eta erroldatze egunetik hamabost egun naturaleko epean lizentzia justifikatuko da, errolda aldaketaren ziurtagiri baten bidez." jasota geratzea.

Aldaketaren arrazoia hurrengo litzateke; lizentzia 10 lan egun lehenago eskatu behar da, eta erroldatze egunetik 15 egun naturaleko epean baliatuko da. Ez dago tarterik lizentzia disfrutatzeke.

#### 46. Artikulua. - Kontsulta, tratamendu eta azterketa medikoetara joateko baimena

1.-"Baimen horrek , oro har, ez du barne hartzen osasun sistema publikoa osatzen ez duten zentroetako kontsulta eta tratamenduetara joatea, sare publikotik ez bada haietara berariaz bideratu"

Paragrafo hau kentzea eskatzen dugu. Horren ordez "osasun publikoan ematen ez diren ala eskaera egin eta hilabete baten barruan jaso ezin diren zerbitzuetara joateko baimena onartuko da, hauen artean dentista, psikologo, psikiatra, ginekologo ala bestelakoak."

#### 49. artikulua. –Hautapenezko karguari dagozkion egin kizunak betetzeko baimena

"Arau gisa, baimen horien orduak ez dira ordezkatu".

**Eskaera:** 1/5eko murrizketak, 1/3 bihurtu, eta ordezkatea eskatzen dugu.

#### 51.artikulua.- Ordaindutako baimena, egonaldiak gauarekin konpentsatzeko

"Ikasleekin jarduera osagarriak egiten dituzten irakasleek, gaua igarotzea eskatzen badute, ikastetxeak zehaztutako baimen ordaindua izateko eskubidea izango dute. Baimen hori hartzea ikastetxeko zuzendaritzarekin adostuko da, eta inola ere ez da ordezkapen-estaldurarik sortuko."

**Eskaera:** baimen hori hartzea ikastetxeko zuzendaritzarekin adostuko da eta ordezkatu dela txertatzea eskatzen dugu. Ikastetxearen AJAn txertatuta egongo da.

#### XX. Artikulua. - Irakasleekin bilerak egitera joateko baimena. Hau txertatzea eskatzen dugu:

Funtzionarioei baimena ematen zaie haien seme-alaben irakasleekin hiru hilean behin egiten diren bileretara joateko, behar den denboran.

#### -XX. Artikulua. - Ezinbesteko absentzietarako denbora.

Senideekin edo bizikideekin zerikusia duten premiazko eta ustekabezko arrazoiak direla eta, langileak lanera huts egiteko eskubidea izango du, gaixotasuna edo istripua dela eta berehala bertaratu behar badu, ala aurreko gaua ospitalean ala larrialdietan eman baldin badu.

Abstentzia ordu horiek ezin izango dira urtean 4 egun baino gehiago izan eta ordaindu egingo dira.

Eskatutako Lizenzia eta baimen berriak	xx. artikulua.- Enpleguaren banaketa Langileok ikasturte osoko iraupena duen plaza bat betetzen ari badira, sei hilabete baimena izango dute gizarte kotizazioak %100ean mantenduz. Urte osoan %50 kobratzea edo lanean aritutako hilabeteetan %100 kobratzea eta baimena hartutako sei hilabeteetan ez kobratzea aukeratuz.
--	--


Eskatutako Lizenzia eta baimen berriak	xx. artikulua. Odola edo odol-osagaiak emateko baimen ordaindua. Ordaindutako baimena hartzeko eskubidea izango dute, odola edo odol-osagaiak emateko behar duten denborarako.
Eskatutako Lizenzia eta baimen berriak	xx.artikulua.- Antzinatasunagatik norberaren kontuetarako baimena . 15 urte lan eginda - egun libre 1 / 18 urte lan eginda- 3 egun libre 24 urte lan eginda - 4 egun libre / 27 urte lan eginda -5 egun libre 30 urte lan eginda - 6 egun libre / 33 urte lan eginda -7 egun libre 36 urte lan eginda - 8 egun libre / 39 urte lan eginda -9 egun libre 42 urte lan eginda -10 egun libre / 45 urte lan eginda -11 egun libre 48 urte lan eginda -12 egun libre / 51 urte lan eginda -13 egun libre
Eskatutako Lizenzia eta baimen berriak	xx. artikulua. Norberaren gauzetarako ordaindutako baimena. 1.lkasturte amaierara arteko iraupena duen plaza bat betetzen ari diren langileek hiru laneguneko baimen ordaindua hartzeko eskubidea izango dute urte bakoitzeko, edo, zerbitzu-denbora laburragoa izan bada, proportzionalki dagozkion egunetan.

## 54. Artikulua. - Ordutegi-murrizketak

### JUBILAZIOA. Egungo egoera

Irakasleen artean baldintza ezberdinak daude!

**Irtenbide bat behar dugu!**



\* 30 urte kotizatuta gutxienez.

\*\* 35 urte kotizatuta eta horietako 2 azken 15 urteetan, 2 urte lehenago jubilatze gaitzke penalizazio ekonomiko batekin (egoera pertsonalaren arabera).

## **Eskaerak:**

**1.- Madrilen gure jubilazioa negoziatzea,** beste kolektibo batzuekin egin da dagoeneko.

**2. Jardun murrizketak (ez irakastorduak soilik) guztiontzat eta hauek metatzeko eskubidea.**

60 urtetik aurrera adinagatik lanaldia (ez irakastorduak soilik) heren bat murrizteko eskubidea guztiontzat, hau da, baldintzarik gabe, eskatzen dugu.

63 urtetik aurrera adinagatik lanaldia (ez irakastorduak soilik) erdi bat murrizteko eskubidea guztiontzat, hau da, baldintzarik gabe.

Langileak aukeran izatea, aurreko bi paragrafoetan ezartzen den moduan disfrutatzeko edo dagokion jardun murrizketa metatu eta jubilatu aurretik, norberari dagokion denboran (langile bakoitzari dagokion murrizketa eta denbora metatuta) lanik egin gabe kotizatzen jarraituz. Jubilatzeko orduan kalterik ez sufritzeko. Hau da urte 1, urte eta erdi, 2 urte lehenago etxean geratzeko eskubidea izatea.

Langile batzuk 63rekin erretiratu behar dira, beste batzuk 65rekin eta besteak 67rekin. Beraz, formulazio eta aukera ezberdinak irekita egon behar dira.

Adina	Jardun murrizketa	Metaketak (aukeran), beraz murrizketarik gabe
60	Herena	<b>Urte 1 lehenago lana utzi kotizatzen jarraituz</b> 63rekin erretiratzen bazara
61	Herena	
62	Herena	
63	Erdia	<b>2 urte lehenago lana utzi kotizatzen jarraituz</b> 65rekin erretiratzen bazara
64	Erdia	
65	Erdia	<b>3 urte lehenago lana utzi kotizatzen jarraituz</b> 67rekin erretiratzen bazara
66	Erdia	
67	Erretiroa	

Jardun murrizketak eta metaketak aukerakoak izatea, hau da, adibidez, langile batek 65 urterarte ezin izango du jubilatu. Bere aukera izan daiteke: 60tik 63ra heren bat murriztu eta gero 63rekin urte bat jardun osoan lan egin eta 64rekin etxera kotizatzen jarraituz Gizarte Segurantzak jubilatzen utzi arte.

Pertsona berdinentzat beste aukera: murrizketarik gabe egon eta 63rekin etxera kotizatzen jarraituz (60tik 65erako murrizketak metatu dituelako).

### **60. artikulua.- Nomina aurrerapenak**

**Eskaerak:** nomina aurrerapenaren gehienezko diru kopuruak 2010koak dira. Beraz, kopuruak eguneratu eta %25 igotzea.

### **61 artikulua. Istripu, bizitza eta erantzukizun zibileko aseguruak**

**Eskaera:** diru kopuruak 2010ekoak dira. Kopuruak eguneratu eta %25 igotzea.

## 62. Artikulua. - Gizarte-funtsa

**Eskaera:** erabili ez den diru kopurua hurrengo urterako gehikuntza gisa gordetzea eskatzen dugu.

Diru kopuru hori honetarako erabiliko da: desgaitasunen bat duten pertsonen arreta emateko laguntza, nazioarteko adopzioetarako laguntza ugalkortasun-tratamenduetarako laguntza, laguntza protesikoa ikusmenerako, laguntza protesikoa entzumenerako, laguntza protesiko ortopedikoak, laguntza odontologikoak, tratamendu eta ebakuntza medikuetatik eratorritako laguntza protesikoak (osun sistema publikoan barneratuak ez daudenak), tratamendu berezietarako laguntza, fisioterapia, osteopatia eta errehabilitazio tratamenduentzako laguntza. Mota horiek metatu ahal izango dira, sindikatuekin adostutako gehieneko mugen barruan.

## 64. Artikulua. - Berariazko osagarriaren dedikazio bereziko osagaia

"64. artikulua. – Berariazko osagarriaren dedikazio bereziko osagaia.

*Negoiazioa gertatu eta irakasleen karrera profesionalari lotutako ordainsari-sistema berria ezarri bitartean, Hezkuntza Sailak orain arte garatu den seiurtekoak kapitalizatzeko sistema aplikatzen jarraituko du, uztailaren 6ko 185/2010 Dekretuan ezarritako irizpideen arabera, eta sistema hori dedikazio bereziko lehen gradura zabalduko da, zeina irakasle funtzionario guztientzako seiurtekoak kapitalizatzeko berariazko osagarriari gehituko baitzaio 2025eko urtarriletik aurrera.*

*4. eta 5. mailak zerbitzuan 24 eta 30 urte egiaztatuta aplikatuko dira, hurrenez hurren."*

**Eskaera:** langile guztientzako iguera beharrezkoa da, azken hamarkadan ordainsarrietan galera oso garrantzitsua izan dugula kontuan hartuta.

2010 urtea geroztik %20ko eros-ahalmena galdu dugu, hemen datuak:

Urtea	Δ KPI	Δ Soldatak	Δ Itzarri	Δ Nomina
2010	% 2,8	-% 5,00	% 0,00	-% 5,00
2011	% 2,8	% 0,00	% 0,00	% 0,00
2012	% 2,4	% 0,00	-% 2,50	% 2,50
2013	% 0,6	% 0,00	% 0,00	% 0,00
2014	-% 0,7	% 0,00	% 0,00	% 0,00
2015	% 0,3	% 0,00	% 0,00	% 0,00
2016	% 1,5	% 1,00	% 0,00	% 1,00
2017	% 1,1	% 1,00	% 0,00	% 1,00
2018	% 1,0	% 1,75	% 0,50	% 2,25
2019	% 1,2	% 2,50	% 0,50	% 3,00
2020	-% 0,3	% 2,00	% 0,50	% 2,50
2021	% 6,4	% 0,90	% 0,50	% 1,40
2022	% 5,4	% 3,50	% 0,00	% 3,50
2023	% 3,1	% 3,00	% 0,00	% 3,00
	% 30,80	% 10,89	-% 0,50	% 10,39
Eros Ahalmena			-% 20,41	

Lehenengo sei-urtekoarenak ez du sektorearen langileengan ia eraginik. Sei-urteko guztien diru kopurua handitzea bai da langile guztientzako iguera bat.

Eros ahalmena berreskuratzen joateko plan bat definitu beharra dago.

## **66. Artikulua.- Kargu akademikoak eta hezkuntzako koordinazio-eta kudeaketa-karguak betetzea**

“Tutoretza ardura duen langile orok, tutoretza osagarriaren % 100 jasoko du, lanaldia edozein delarik ere, jardunaldia osoa bi pertsonen betetzen duten kasuetan, biek jasoko dute tutoretzaren osagarria” gehitzea eskatzen dugu.

Gainera “tutoretza karguaz gain, beste kargurik duen langileak bi osagarriak eskuratuko ditu” gehitzea ere eskatzen dugu.

## **VII. TITULUA.- Irakasleen prestakuntza eta irakasleen hizkuntzen arloko trebakuntza hobetzeko prestakuntza.**

Orokorrean zehaztaperen maila eskasa dela iruditzen zaigu, asmoz beteriko atala da. Proposamen berri honetan 2010eko lan akordioan dagoen 75. artikulua (Prestatzeko, hizkuntza normalizatzeko eta hizkuntzetan gaitzeko batzordeak) desagertu da eta gure ustez, jasota egon beharko litzateke.

77. artikuluan (Akordio honen indarraldirako konpromisoak) aurreko akordioan kopuruak argi ageri ziren baina balizko lan akordio honetan konkretiorik ez dago.

Bestaldetik, IRALeen kasuan, esaterako, proposamen honetan ez da aipamenik egiten. Eta Berritzegunetako estruktura berriari ez zaio aipurik egiten.

## **68. Artikulua. – Irakasleen etengabeko prestakuntza**

Hurrengo paragrafoan

*“ 6. puntuan- Prestakuntza-eskaintza zabala, globala, kalitatezkoa eta doakoa izango da, eta, gainera, euskaraz irakasten duten irakasleek euskaraz jaso beharko dute beren prestakuntza, funtsean.”*

Funtsean hitza desagertzea eskatzen dugu, euskaraz garatuko dela argi egoteko.

*11.- “Hezkuntzaren arloan eskumena duen sailak bermatuko du prestakuntza-jardueren administrazio-onarpena, bai sailak berak sustatutakoena, bai erakunde laguntzaileek sustatutakoena, baldin eta dagokion araudiaren arabera homologatzen badira”*

Erakunde publikoek sustatutakoa izango dela adierazita egotea funtsezkoa iruditzen zaigu.

## **69. Artikulua. – Irakasleen prestakuntzari buruzko konpromisoak hitzarmen honen indarraldirako**

*5.- “Banakako diru-laguntzak, eskaintza instituzionalean jasotzen ez diren prestakuntza ikastaroetara doazen irakasleen gastuak ordaintzeko.”-*

atalean ikastaro guztietan diru-laguntzak jasota agertzea eskatzen dugu.

Amaieran dagoen paragrafoa desagertzea eskatzen dugu:

*“Prestakuntza-jarduerak ikastetxean ematen den ordutegiaren barruan nahiz ordutegi horretatik kanpo egingo dira. Prestakuntza uztailen jaso daiteke, eta kasu berezi eta berezietan, abuztuan.”*



## 70. Artikulua. – Irakasleen hizkuntza-gaitasuna hobetzeko prestakuntza

- "2. Irakasleentzako euskarazko C2 maila lortzeko eta ingelesezko C1 maila lortzeko. Prestakuntza sustatuko da."

paragrafoan euskarazko C2 maila eskuratzeko irakasleen liberazioak gauzatuko dira. Prestakuntza hori gauzatzeko IRALEetatik (edo publikoak diren erakundeetatik bideratuko dira). Aurrera eramateko sustatzearekin ez da nahikoa, xehetasun gehiago agertu behar dira. Euskara bultzatzea eta lehenestea derrigorrezko pausua izan behar da, edozein atzerriko hizkuntzaren aurretik.

Hizkuntza formazioez gain, hurrengo txertatzea eskatzen dugu: Ikastetxeetako planak eta ekintzak aurrera eramateko, irakasleek formazioak jasoko dituzte. Zuzendaritzek formazio propioa dute, Bizikasi edo Hezkidetzaren planerako ere horrelako formazioa izaten da, beste edozein plan edo ekintza berezi aurrera eramateko ere horrelako formazioak eskainiko dira.

Beraz, artikulua honen amaieran planekin eta proiektuekin lotura duten formazioak jasota egotea eskatzen dugu.

Dekretu, proiektu edo protokolo berri bat ateratzean aurrera eramateko behar den formazioa zehaztuta agertzea dokumentuetan eta horrekin batera dagokien ikastetxeko antolakuntzarako ordu kreditu kopurua zehaztea.

Formazio hauek Hezkuntza Sailak antolatuko ditu, eta ikastaro hauei dagokien ordu kredituak ez dira inolaz ere beste bide batzuetatik onartuko (aparteko unibertsitate edo akademiak adibidez), hau da, ez dira formazio partikularrak onartuko.

## 72. Artikulua.- Osasuna eta Segurtasuna

"72. artikulua. – Osasuna eta segurtasuna.

1. – Hezkuntza Sailak behar adina neurri hartuko ditu laneko arriskuen prebentzioaren arloan langileen segurtasuna eta osasuna babesteko: arriskuen ebaluazioa, informazioa, kontsulta, langileen parte-hartzea eta prestakuntza, larrialdiko eta arrisku larri eta hur-hurrekoko kasuetan jardutea, eta osasuna zaintzea.

2. – Horretarako, ikastetxe, hezkuntza-zerbitzu eta lanbide-heziketako erakunde tekniko eta aholkularitza-erakunde guztiek Laneko Arriskuen Prebentziorako Zerbitzuarekin lankidetzan jardungo duten langileak izango dituzte, abenduaren 9ko 299/2003 Dekretuaren 6. artikuluan ezarritakoaren arabera. Lankidetzaren hori ikastetxeen kudeaketaren esparruan txertatuko da, eta ikastetxeen autonomiaren arabera zehaztuko da. Zeregin hori irakasle batek egiten badu, irakasle horrek astean gutxienez bi eskola-ordu izango ditu lankidetzaren eginkizun horiek betetzeko.

3. – Segurtasun eta Osasun Batzordeak arduratuko dira arriskuak prebenitzeko planak eta programak egiteaz, abian jartzeaz eta ebaluatzeaz, Hezkuntza Sailaren Segurtasun eta Osasun Politika Orokorren dokumentuan ezarritakoari jarraikiz.

4. – Hezkuntza Sailak lan- eta sexu-jazarpena saihesteko lan-baldintzak sustatuko ditu. Era berean, jazarpen hori prebenitzeko irakasleentzako prestakuntza-ekintzak sartuko dira formakuntza-planetan. Sailak gatazkak konpontzeko prozeduren ezarpena bultzatuko du, bitartekari baten esku-hartzearekin, laneko jazarpen moral eta sexualaren kasuetarako, bai eta lan-giro ona sustatzeko ere.

5.- Hezkuntza Sailak irakasleei zuzendutako prestakuntza-jarduerak sustatuko ditu, haien osasun sozioemozionala zaintzeko. Horretarako, partida ekonomiko espezifiko bat izango du, bai jarduera kolektiboak garatzeko, - prestakuntza-saioak, sentsibilizazio-programak, etab. -, bai arreta individuala emateko, beharrezkoa dela erabakitzen den kasuetan. Banakako nahiz taldeko esku-hartzeetan parte hartzeko baldintzak Segurtasun eta Osasun Batzordean negoziatuko dira. Jarduera horiek 2024-2025 ikasturtean abiaraziko dira.

6. – EAEko unibertsitateaz kanpoko irakasleen sektorean ordezkaritza duten sindikatuek izendatutako langileak izan daitezke prebentzio-ordezkariek, nahiz eta ez izan langileen ordezkarik edo ordezkarik sindikal. Sektore honetako prebentzio-ordezkariek kopurua Hezkuntza Saileko prebentzio-ordezkariek gutzizko kopuruaren banaketaren emaitza izango da, zeina, sektore arteko akordioaren arabera, 65 baita.

Horrela, erakunde sindikalek itundutako banaketaren arabera proposatutako dituzte prebentzio-ordezkariek, zerbitzuak edozein sektoretan ematen dituztela ere.

Prebentzioko ordezkariek beren eginkizunek eragindako joan-etorrietako gastuei dagozkien kalte-ordainak jaso ahal izango dituzte.”

**Eskaera:** arriskuen ebaluazioak noiz eta zenbatero egingo diren zehaztea falta da. Orain ez dira egiten.

Prestakuntza jarduerak ez dira nahikoak, benetan irakasle on osasuna bermatuko duten neurriak behar ditugu, arrisku psikosozialak kontuan hartuz.

Langileek urtean behin azterketa medikuak egiteko derrigortasuna txertatzea eskatzen dugu.

## 75. Artikulua.- Aniztasunari erantzuteko esparruko prestakuntza

3. “Hezkuntzaren arloan eskumena duen sailak prestakuntza-jarduera espezifikoak sustatuko ditu tutoretza-funtzioa eta hezkuntza-orientazioa hobetzeko, aniztasunari ematen zaion erantzunaren kalitatea hobetzen laguntzeko.”

**Eskaera:** hemen txertatu beharko lirateke aurreko akordioan bezala zerrendatuta zeintzuk dauden eta zein baliabideekin hornituko diren.

## 75. Artikulua.- Ekintza sindikala

“Era berean, Akordio honen ondorioz sortutako Batzorde Paritarioari agindutako zereginak

garatzen laguntzeko, erakunde sindikal sinatzaileek beste bat izendatu ahal izango dute beren kideen artean, beren lanalditik erabat liberatzeko eskubidearekin, gainerako kideei dagozkien ordu sindikaletan eraginik izan gabe. Liberatu horrek gainerako liberatu sindikalen lan-baldintza berak eta administrazio-egoera bera izango lituzke.”

**Eskaera:** paragrafo hau desagertzea.

## 76. Artikulua.- Batzorde Paritarioa

“Deialdiaren eta bileraren arteko denbora laburtu ahal izango da, bi alderdiek hala adosten badute. Nolanahi ere, bilera baten eta hurrengoaren artean ezin izango da hiru hilabete baino gehiago igaro, ezta hamabost egun baino gutxiago ere, alderdiek bestelakorik adosten ez badute.”

**Eskaera:** paragrafo honetan aurreko akordioan bezala bi hilabete jartzea.

**STEILAS**

Euskal Herrian, 2024ko ekainaren 13an